

abar-jabiak erijan zan gixon baregari, Muzki'gana jo eban.

Beronek lapuza ezabela ezaguna, erantzun eutsen; salatu gura ba-eban baña, lapuza ezautzen ebana nun eguan bai ekijala; goxari on bat ordaintzen ba-eutsen, nun idoroko eban pozik erakutsiko eutsola.

Eratzotiarren Afotxena'renien goxari edera ordaindu eutsen Mallabi'tarak.

Oparo goxalduta gero, Muzki'k Mallabi'tara Uribaldi'ko elexara darua, ta, txaunestokiko zurubijan (*eskalleran*) dagon Kisto gurutzalduba erakutsirik, dirautso: "Esan gura ba-dau, ofa of, lapuza ondo ezautzen dauna.

*Larisondo.*

## EUZKEL-ABESTIJAK

ABERI MATIARI

Ona, gauñ be, abesti (*kanta*) gozo-polita argifaltzen dogula. Guridi'k Otxandiano-aldian bildu ebazan abestijen artian agertzen da, ta orain iru urte-edo "Euzkadi" izpañgijan argifaldu zan. Aizkide bati entzun geutsoez abesti au emakume bertsolari batek abestuten eban antziñan.

Tolosa-aldian be abestuten zan abesti au (eztakigu oin be abestuten dan), baña zer-edo-zer aldatuta.

Emen agertzen dan abestitza (abestu-itza edo *letria*) "Kirikiño" geure aizkidiak ezafi eutsen, eta egiz egoki alkaf-tzen da *musika* edo erestijaz.

### ABERI MATIARI

(BIZKAI-ABESTIJA)

*Nelate*

Lora-polita on-tzi-jan be-gi-ra-tzen do-  
da-ni-a-p, or-du-ban zau-ko-t. e-ne ma-ti-a,  
ne-ure go-gu-a-p. ¡ai-ni-por-li-ta  
ka-yo-lan baxi-u-a-izan da-be-ni-an.  
¡ai-ni-du-ban-fee zaxi-bi-ma-ti-a. ne-ure go-gu-  
an.

Lora polita ontzijan be-giraten dodanian, orduban zaukot, ene matia, neure goguan.

Txori polita kayolan bafurutzen dabentian, ¡ai! ordubantxe zaukot, matia, neure goguan.

Mutikotxuba ikastolan il-illik saitzen danian, zeure gomuta bixi-bixija daukot goguan.

\* \* \*

"Euzkel-abestijak" *Euzkeltzale-Bazkuna*'k salgai daukoz Bilbao'ko Bidebafeta-14-2'gn. *Bakotxa erial baten.*

\* \* \*

Egunokaz Bilbao'ko "Euzko-Gastedija" n asi dira euzkel-abestijak irakasten. Gaste-talde bat batuten da gabian gabian abestijok ikasten, eta eztabe buruko min andirik artuten eurok ikastiaz: aide baten ikasten dabez.

Gero bultzi edo *trenan*, *tranbijan*-eta ofetariko iru edo lau batuzkero asiko dira euzkel-abesti ofei ekifen, eta abestijokaz abertzaleatasuna, euzkotasuna, jeltzaleatasuna zabal-tzen. Amaika bidañ ikusi doguz baesfirarak adriadi, aduñ darijola, euri entzuten. Ora, ba, Jel-azija zabaltzeko era polita.

Beste urijetan be, jeltzaliak orixe egingo ba-lebe, gauza ona egingo leukie. Eta gurazkero egin leukie.

### EUZKELDUN NESKATIARI

Ondo menduba ixateko, edozein neskatitak jakin biar daunatzaz, asko ta asko idatzi (*eskribidu*) da erdera gustijetan. Euzkeraz, baña, gitxi edo bapez, neuk dakidala beintzat.

Neskatilla batek jakin daiken gustija ezta gauza, sendi edo *pamillija* zaindu ta etxia atonduten eza-daki. Etxekander-dera-geya ixateko ikastola edo eskolatik urten dan neskatillari jakin erazo biar-yakoz etxeko biarkun edo obligazi-ño gustijak, beti zorijontsuba ixan datela gura-etzekero.

Gixonak beti dauko jakin biar-dauna nok irakatsi; emakumiak gitxi-jago, euzkeraz batez-be ¿Bidebakua ete-da, ba, euzkel-izpañgingi onetan gai onetzaz jardutia? Eztotuste.

Jardun daigun, ba, neskatilleak. ¿Ez ete-da egija, eguzki-bako eguna gogaikarjia dala, ta lora-bako baratz edo lorategija itxusija dala? Beraulan be, ¡neskatilla-bako etxia dan itun edo tristia!

Neskatillea da sendi-bafuban, baratza apainduten daun lorea, poztu ta berotuten daun eguzki-izpija, ta bere txio-gozatsubaz, bijotza alaütuten daun txorija. Sendi-artian bera ixan biar-da bakia, gozotasuna ta itxaropena; bestiak atse-gindutiafen bere buruba makuñtzeko gertu egon biar-da beti. ¿Buru-makuñtze onek eztauko bere sarjia? Bai, ta andija: gustijoen mañagafi ixatia.

Sendi batasunaren lokarjia, zuben eskubetan dago neskatilleak; erakutsi egijezube batzuberi, bestiak egiñen daben ona; txarto egiñak arteztu; utsak eta okeñak gorde; asafiak baretu...

Gastiak eta ludi edo mundu onetako gauzaetan etxak-ñak ixan-aren, zubez daukozube hakiaren giltza, zubelein daukozubezalako adinaren apaltasuna, bijotzeko matasun egijazkua ta goguaren garbifasuna, ez ezek ez inok ondiño-loñ eztauna.

¡Neskatillak! Zuben etxietan zorijona ba-da, Jaun-goi-kua'ri eskafak egijozubez; zoritxara ba-datof, gogo sendoz eruan egixube ta bestiei eruaten lagundu egijezube. Gustijentzako afera ona ta itz gozuak euki; zuben gurasuak dau-zuben matasuna ontzat artu ta matasun andijaguagaz ordaindu. Ixan zafeze, azkenez, sendi-bafuban, batzen daun erestuna, gogua asetuten daun itxa, eutsifen daun besua, ta zuben ekandun (*birtute*) ta egiñenakaz Aberi-ixena mañatu-ba ixan datela egixube. ta berak baño geyago balijo dauna: Goi'ko Jaun onaren ixena.

*Etxakin.*